

Alzako HERRI PROGRAMA



2007 maiatza

EZKER ABERTZALEAREN HERRI PROGRAMA

Udal hauteskundeak iristen direnean herri programataz hitzegiten dugu behin eta berriro. Eta edukinetan sartu aurretik, zalantza egotekotan, hori argitu nahi dugu ezer baino lehen. Zer da ezker abertzalearentzako herri programa?

Herri Programa, Ezker abertzalearen proiektu politikoa garatzeko tresna da. Herriz herri irudikatzen dena.

Nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialaren bidean oinarriak artikulatu behar ditugu. Eta oinarri hoiak herri programan definitzen dira.

Herri Programa, Euskal Herria ezkerretik eraikitzeke ariketa praktikoa da. Diagnostikoa abiapuntutzat hartuta, gure herri eredu teorikoa sakondu eta herrian ditugun behar eta ekarpenak jasoaz borobiltzen dugu Herri Programa. Gure herri alternatiba.

Herri Programak udalak dituen eskumenen arabera baino, herritarren eskubide eta zerbitzuak bermatzeko balio behar du.

Urte guzti hauetan Ezker abertzaleak herri eredu alternatiboaren eskaintza politikoa egiteko gaitasuna duela erakutsi du, baita heldutasuna eta prestutasuna ere.

Herri Programa, herriarekin eta herritarrekin lantzeko eskaintza egin dugu beti. Udala herriarena izan dadin eta ez alderantziz. Udaletxea kalera zabalduaz. Partehartzailea beraz.

Hurrengo lerroetan Alzako Ezker Abertzalearen herri programa aurkeztu nahi dugu. Esan bezala, **partehartzailea, euskalduna, ezkerretik eginda, emakume eta gizonen arteko parekidetasuna bermatu nahi duena. Injustiziarik ateak izten dizkiona eta pertsona guztien eskubideen alde borrokatzen duena.**

ATZERA BEGIRATUZ

Pasa dira urte batzuk Altzako ezker abertzaleak bere lehenengo Herri Programa osatu zuenetik. **Jendearen parte hartzea bilatu duen programa herrikoa, altzatarren benetako interesak defendatu asmoz.**

Lehenengo udal hauteskundeetara jotzen badugu, Herri Batasuna bezala aurkeztu ginenean (1979-03-21), esaten genuen alkaterik onena herria zela. Eta horrela definitzen genuen ezaugarrituko gintuen herrikoi izaera. 20 urtez, Herri Batasuna edo HB izan da gure ikurra.

1999.ko egoera politikoaren ondorioz, tresna berri bat sortu genuen, Euskal Herritarrok. Beranduago, Batasuna izango da. Hurrengo legealdia ilegalizazioaren aroa izango da, bai Batasunarena bai ezker abertzaleko erakunde ezberdina. Garai gogorak, ilegalizazio eta kriminalizazioarenak. Honela, 2003.an Baga Boga Donostialdeko plataforma elektoralak Donostiako udaletxetik kanpo geratuko da Euskal Herriko beste herri askotan bezala.


Jasandako eraso guztien gainera, gure erakundearen aurkako errepresioaz gain, gure jendeak ezkerreko politika baten alde lanean eta borrokan jarraitu du.

Belaunaldi ezberdinetako altzatarrek borrokan eta lanean aritu gara Altza eremu guztietatik eraiki asmoz eta etorkizun ikuspegi batetik.

Gure herriko egoeraren azterketa sakonak egin dira. Udalak Altzarako zuen garapena hausnartzeko jardunaldiak burutuz. Ijentea kaletik diseinatutako planen eraginak kontutan izan ditugu. Gure eguneroko bizitzan, harreman sozialetan eta Altzako identitatean izan dituen ondoriak aztertuz. Nolako Altza nahi dugun eta nola ez dugun nahi hitz egin da. Eta guzti hau udal hauteskundeetako herri programetan eratu dugu.

Ezker Abertzalearen helburua ez da inoiz izan botoak irabazteko programa bat aurkeztea, gero esandakoa ez betetzeko. Ez.

Herria gara. Herriaren parte aktiboa. Eta Altzan bizi garen ongizateak mugitzen gaitu. Hori bai, ezkertiar eta abertzale ikuspegi batetik, non aldaketa sozialak zoriontsuagoak eta berdina goak egingo gaituen.



19179-03-21. Lehenengo udal hauteskundeak



1999: Euskal Herritarrok

ETORKIZUNARI BEGIRA

Gure historia hurbilari errepasso bat egin ondoren, orain arteko lana ahaztu gabe, 2007ko udal hauteskundeetarako herri programa osatuko dugu, orain arteko borroka eta esperientzian oinarrituz.

Herritik sortua eta herriarentzat eginiko programa bat izatea nahi dugu, apaltasun guztiarekin. Altzako elkarte, talde eta pertsona ezberdinek urteetan eginiko aportazio guztiak kontutan hartuta. Eta aldi berean **behar nagusiak eta lehentasunezko lan ildoak identifikatuz.**

Ez gara ohiko politikariak. Ez gatoz lau urtetatik behin botoa eskatzera. Hemen bizi gara. Eta **Altzarako eta Euskal Herrirako bizi kalitate hobeko baten defentsa egiten dugu, justizia sozialean oinarrituz eta gure lurraldearen iraupena errealitatea bihurtuz.**

GURE LAN ILDO NAGUSIAK

Lau lan ildo nagusietan zehaztu dugu Altzako Herri Programa. Eta hoietaz hitzegino dugu hurrengo lerroetan.

1. Euskara.

Gure hizkuntza berreskuratze bidean asko dugu egiteke. Horregatik hurrengo urteetarako hainbat proposamen zehatzak planteatzen ditugu.

2. Hirigintza.

Gai hau Altzan izugarrizko garrantzia hartzen du, urte guzti hauetan Altzak izan duen garapen kaotikoagatik. Gabezi asko dituen komunitate bat da Alza. Baina konbentziturata gaude beste politika batekin konponbidea duela.

3. Alzaren izaera juridikoa. Alza herria.

Anexioa eman zenetik Alzaren etorkizuna Donostiatik markatuta etorri da. Urte guzti hauetan Alzaren hazkunde eta garapena baldintzatuta egon da Donostiako interes eta beharrei erantzuterakoan.

Altzak etorkizun hobeago bat izateko nortasun juridiko propioa behar du: herria.

4. Ezkertiar ikuspuntu batetik proposamen zehatzak.

Justizia sozialaren alde lan egin nahi dugu. Ezkerreko politika bat aurrera eraman, gutxien duenarekin, langileriarekin.

EUSKARA: BERRESKURAPEN OSORAKO INFLEXIO PUNTUA

Hausnarketa egin ondoren, Altzak Hizkuntza Arloko Diagnostiko sakon baten beharra duela uste dugu. Bertan, besteak beste, duela 6 urte diseinatutako Plan Estrategikoaren bilakaera aztertuko genuke eta behar izanez gero **Plan Estrategiko Berri baten diseinua** egingo litzateke. Era berean, Altzako Plan Estrategikoa landu eta **jarraipena egingo duen Jarraipen Batzordea sortu.**

Jarraian zehazten diren lan ildo hauen multzoak gutxieneko izaera du eta **Euskararen berreskurapen osoaren inflexio puntua finkatzen du.** Ondorengo ildo hauek garatuko ditugu Herri Programan:

Udal ordenantzak. Altzako euskaldunon eskubideak eta euskararen ofizialtasuna bermatzeko tresna behar dute izan Udal Ordenantzak. Horretarako, Udal Ordenantzak berrikusi behar dira, euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko adina izan daitezen eta ezarpena ziurtatu. Aldi berean uste dugu zigorrak aurreikusi beharko liratekeela. Adibide gisa zirkuen karteekin gertatzen dena aipatu nahi dugu: Donostiara zirkua doan bakoitzean, beraien kartelak gaztelera hutsean jartzen dituzte kalean, udalak ordea ez du horren aurkako inolako neuririk hartzen.

Altzatarron euskalduntasuna bermatu. Euskalduntzen ez duten eskola ereduak desagerrarazi egin behar dira. Bidebietako institutuan eta Anunciata eskolan, oraindik A eredu dago. Helduen euskalduntzean doakotasuna, bertako zein atzeritarrentzat.

Administrazioa eta zerbitzu publikoak. Udalaren iragarkiak hedabideetan, hauen euskarazko kuotaren arabera jarri beharko lirateke. Anbulategia: zerbitzua euskaraz.

Lan mundua, enpresa pribatuak. Bai Euskarari Akordioa indartu eta Diagnostikoarekin alderatu lortutako emaitzak. Akordioa indartzeko behar adina baliabide jarri.

Hedabideak eta kulturgintza. Hitza bultzatu eta honen harpidetzak lortu. Donostialdeko euskarazko telebista bultzatu. Gainera gainontzeko telebista lokalei euskarazko nahikotasunezko kuota ezarri.

Baliabideak. Koordinazioa bultzatu Altzako euskalgintza eta udaleko euskara zerbitzuaren artean.



Anbulategia: zerbitzua euskaraz.



Helduen euskalduntzea: kurtsoak dohain.

HIRIGINTZA BASATI BATETIK ALTZAKO BERRIZTAPENERA

Hirigintzaren kasuan guztiz beharrezkoa da atzera begiratzea etorkizunari begiratu ahal izateko. Gure bizitza, gure egunerokotasuna eta erlazionatzeko moduak baldintzatzen duen errealitate urbanistiko batetik abiatzen gara.

Gaur egungo Altza ez da halabeharrezkoa (kasuala). Aurreko urteetan bilatu behar ditugu zergatiak.

Altzako anexioa Donostiaren aldetik (1940.an) hasiera izan daiteke. Aro frankistan behartutako bat egitearen ondorioz, aldaketak berehala eman ziren, eta garai hoietako alkateen interesak gaur egungo alkateen interes berdinak dira.

Guda zibilaren ondoren atzerapen ekonomikoa nagusitu zen eta 1950. urtetik aurrera biztanlego bolumena biderkatu egin zen garapen demografiko izugarria suertatuz. Horrela, hamar urteren buruan, 50-60 hamarkadan, biztanlegoaren bolumena ia bikoiztu egin zen, %85aren hazkundera emanik. Hurrengo hamarkadan gauza bera gertatuko da, %98ra iritsiz. Hogei urteetan soilik (1950-1970), Altza hirukoiztu egiten da.

Etorkinen kopuru handiari aurre egiteko sortutako garapen urbanistikoa basatia eta kaotikoa izan zen bizi kalitatearen kalterako. Txiroak ghetuetan elkartu zituzten, eta horrela lotarako baztertutako auzoa sortu, mota guztietako gabeziak egonik. Honen ondorioz bizilagunen borrokak gogoraraztea besterik ez dago: kaleak asfaltatzeko, espaloiak, argia, saneamendua, anbulategia, polikiroldegia, kultur etxea, drogaren aurkako borroka (altzatar gazte asko hil ziren garai hartan heroinagatik), parke eta lorategiak, eta abar.

Beraz, guztiz ironikoa suertatzen da Altza anexionatzeko Donostiak emandako arrazoiak, zeinaren bidez bideak eta eskolak hobetuko ziren.

80. hamarkadan eraikuntza prozesu ero hori gelditu egiten da. Aztertu beharko genituzke horren arrazoiak. Agian lotsa sentitu zuten. Ez dakigu. Baina aldi berean gogoratu behar dugu bizilagun elkartearen salaketa, eraikuntza ilegalak argudiatuz. Adibide batzuk jarrita, gogorarazten dugu 13-2 poligonoan, Larratxori dagokiona, eraikitako etxe kopuru ilegalak eskandalagarriak izan zirela: 140.000 m³ (50.000 m² eraikiak, 500 etxebizitza). Datu hauek Altzako bizilagun elkarteek berreskuratutakoak dira.

Udaletxeak egoera hau onartu zuen, baina bizilagunen presioak bloke pare bat lizentziarik gabe eta eraiki gabe geratzea lortu zuen. Espreski 75.000 m³ eraiki gabe geratu ziren (bi bloke hauek gaur egun Txirrita Bertsolarian eraiki nahi dituztenak dira).

Udalak bultzatutako legez kanpoko beste adibide bat da Herreran egindako bi blokek beren altuera bikoiztu egin zutela. Lau pisutako etxeak izan beharrean 10 eta 12 pisutakoak egin zituzten.

Gertatu denaren inguruko erreposoa egitea beharrezkoa da, jakiteko gauzak nola gertatu diren eta era berean Altzaren egoerari buelta emateko. Uste dugulako egoera hau ez dela itzuliezina.

Urte askotan insistitu eta gero, udal politikariak Altzak jasandako bazterketa eta anabasa urbanistikoaz hitzegiten hasi dira. Ekipamenduen eskasia eta gabeziak errekonozitzen dira. Hiriko Plan Orokorrak Larratxori buruz hau esaten du: "barrio de peor calidad ambiental de la ciudad, de modelo a no repetir y de urbanismo desordenado y desestructurante, con peligro de segregación social". Honez gain, euskal hiriburuetako liburuak auzo langile honen berri ematen du eta kalitate baxuko eta degradagarri bezala aipatzen du.

Guzti honek zergaitiak eta erantzule politikoak ditu. Ez da ahaztu behar.

Errepaso hau egin ondoren, esan dezakegu **gaur egungo herentzia gabeziz beterikoa dela eta era global batez marrazten dela bai ekipamendu bai zerbitzuetan, etorkizuna mehatxagarria izanik.**

67 urte pasa dira Donostiak Altza anexionatu zuenetik, eta eraikuntza basati eta kaotikoa hasi zenetik. Eta beste hainbat urte anabasa urbanistikoa onartu zutenetik.

Baina zoritxarrez Donostiako udalak Altza modu berdinez begiratzen jarraitzen du. Lur erreserba bezala. Eta orain dela 25 urte egin ez zutena egin nahi dute orain: eraikitzen jarraitu.

Auditiz-Akularren eraikitzea saiatu ziren Odon Elorza zinegotzia zenean, orain dela 25 urte. Eta bere botoa Auditiz-Akular gune natural bezala mantentzea izan zen.

Gauza bera gertatzen da Txirrita Bertsolarian egin beharreko blokeekin. Udalaren pelotzoa izugarria da. Bloke hauek eraiki gabe gelditu ziren gehiegizko masifikazioa zegoelako, eta gaur egun garai hartako eskubide urbanistikoak berpizten dituzte era ilegal batez eraiki zuten konstruktoreei mesede eginez.

Donostiako udalak lehenasuna ematen dio bertako errentagarritasun ekonomikoari Altzako garapen orekatuaren gainetik.

Altzako etorkizuna jokuan dago. 16 urtez Odon Elorza alkate bezala egonik etorkizun beretsua ikusten da. 5000 etxebizitza gehiago eraikitzearekin Altzari azken arnasa kenduko lioke, kontutan izanda gaur egun 7.500 etxebizitza daudela.

Ezin dugu onartu historia bera errepikatzea. Ezin zaio erantzun etxebizitzaren arazoari modu elektoral batean, lurra ezin da zabarkeriz erabili, eta berriz ere Altzaren bizikalitatea sakrifikatu.

Honera iritsita eta aurrekariak kontutan hartuz, ulertzen dugu **Altzak konponketa historiko bat behar duela, eta bere auzoen berriztapena, biak erabat premiazkoak izanik.**

ALTZAKO ANEXIOA. 1940 apirilaren 6



Politikari donostiarrak besoa altxatuta espainiako erezerkia abesten.



Agindu makilaren entrega eginez.

ERREPARAZIO HISTORIKOA

Historia hurbilari errepasso bat egin eta gero ulertzen ditugu beste modu batez ulertuko ez genituen hainbat gauza. Altzako anexioaren kasua da, Donostiaren eskutik, interesatu eta gutziatsua.

Altza herria izan zen 1940. urterarte. Donostiako udalak Altzako identitatearen desagertzearen prozesuan paper garrantzitsu bat izan du. Lehenetsuna eman zioten Donostiako errentagarritasun ekonomikoari Altzako garapen orekatuaren gainetik.

Garbi hitzegiteko garaia da. Anexioarekin negozio egitera etorri ziren. Probetxu gehien atera nahi zuten bertan bizi behar zutenen bizi kalitatea kontutan izan gabe.

Urte guzti hauetan bizilagunen borroka eta eskakizunek erakutsi dute ez dela berdina arazo ezberdinei erantzutea auzo perspektiba batetik edo herri perspektibatik. Eta hori behin eta berriro azaldu da.

Gaur egun, nahiz eta beste kontestu politiko batean egon, politika bera mantentzen da.

Gaur egun une oso garrantzitsu batean aurkitzen gara. Berriro ere Ijentea kaletik diseinatutako eraikuntza proiektu erraldoiek mehatxatzen gaituzte, eta berezko eta ezberdindutako, nahiz eta zigortutako, komunitate baten identitatearekin bukatu nahi dute, betiko batzuen etekinerako (konstruktore, promotore eta udala bera). Honekin batera gure izaera juridikoa berreskuratzeko aukera betirako ukatuz.

Zentzu honetan, gaur berandu baino lehen, desanexio prozesu bat martxan jarri behar dugu, gure erabakitzeko eskubidea bueltatzen diguna. Gure interes eta beharrei erantzun ahal izateko.

Ezker abertzaletik urte guzti hauetan lan egin dugu Altzako identitatearen berreskurapen, mantenimendu eta garapenagatik. Eguneroko lan politiko eta sozialetik abiatuta eta inizatiba ezberdinetatik lan egin dugu herri kontzientzia berreskuratzeko asmoz.

Baina hau ez da nahikoa izan. Gaur egun ez dira kontutan izaten altzatarren beharrak. Ez dute gure hitza errespetatzen, gure iritziak. Ez dute gure beharretara erantzuten. Bigarren mailako hiritarrak gara.

Eskatzen dugun erreparazio historikoa 1940ko izaera juridikoaren ezarpena da. Herria ginen eta herria izan nahi dugu.

Azken finean aro frankistan egindakoa erreparatzea izango litzateke. Horretarako Donostiak uko egin beharko lioke Altzaren ustiapenari.

Batzen baditugu lurralde baten etorkizunean garrantzi gehien dituzten gaiak, -nork gobernatzen duen eta nolako etorkizuna proiektatzen den- erantzuna jasoko genuke: bakarrik Altzatik gobernatuta izan dezakegu Altzak behar duen etorkizuna. Eguneroko arazoak bizitzen duenaren sensibilitatetik uler daitezke soluziobide egokiak. Ez dugu Donostiako kolonia izan nahi. Gertu dagoen gobernu bat behar dugu.



Alzako udaletxea.

GURE AUZOEN BERRIZTAPENA

Altzako berriztapena erabakitzeaz dagoen zorra izateaz gain, Donostiako udaletik plangintzatzen duten etorkizun mehatxagarriari freno bakarra da.

Proposamen zehatzetan sarturik, helburu hau gestionatzen duen enpresa publiko baten sorrera proposatzen dugu: berriztatzeko plan bat. Herritarren parte hartze errealarekin, eta elkarte zein bizilagunekin. Ez bakarrik iritzia emateko baita ere erabakitzeko. Funtsezkoa da gure auzoak eta okerren dauden zonaldeak hobetzeko altzatarren iritzia eta erizpideak. Guk sofritzen ditugulako masifikazioaren ondorioak eta ekipamendu falta.

Bada garaia guztiek onartutako anabasa urbanistikoari buelta emateko. Altzako bizi kalitatea hobetzeko inbertsioak beharrezkoak dira. Horretarako lehenik eta behin gabezien ikerketa sakon bat burutu behar da, hirigintza eta arlo ekonomikoan oinarrituz. Ikerketa hori etorkizunerako proposamenen oinarria izanik. 20.000 biztanle baino gehiago ditu komunitate honek. Ikertu eta proiektatu behar dira zerbitzu eta ekipamenduen falta, ekonomikoki neurtuz eta udal aurrekontuan sartuz.



Buenavista: zegoen plaza bakarra etxeak egiteko kendu dute.



Herrera: zegoen parkea errepide berria egiteko kendu dute.



Nerecan: aktibitate ekonomikoentzako guneak etxeak egiteko erabili dituzte.

HEMENDIK AURRERA BERRIZTAPEN PLAN HORRETARAKO HAINBAT ERIZPIDE ETA PROPOSAMEN PLANTEATZEN DITUGU. BEHARREZKOA DA ZEHAZTEN JOATEA, HERRITAR MUGIMENDU ETA BORROKA EZBERDINEK HORRELA ESKATZEN DUTELAKO, ETA EGUNEKO BEHARREK HAUEK GAUZATZEA ESKATZEN DUTELAKO.

Hitz egiten dugun berriztapen honetarako premiazkoa da **nekazaritza edo lur libreen okupazio berriak ekiditea**. Lur horiek, Altza bezalako biztanlez gaineko komunitateak, behar dituelako beren aisialdirako.

Auditx-Akularren eraikitze intensiboari ezetza borobila.

- ezin delako zabaltze plan bat eratu gaur egungo Altzari bizkarra emanaz.
- 60 eta 70. hamarkadetako plan frankista bezalako delako: desorekatua, lurraren aldetik zein sozial aldetik begiratuta.
- Altzak ezin duelako berriro ere komarka osoaren etxebizitzaren beharrari erantzun. (Altzako benetako etxebizitza beharra izkutatzen da. Hau 600 etxeetako izanik).
- Udalaren gestio eskasa erantzutera datorrelako. Hirian babes ofizialeko 3000 etxebizitza eraikita egon beharko lukete 1995.tik.
- Auditx-Akular guztiz beharrezkoa delako berriztapen plan hau burutzeko.

Bizitzarako guneak berreskuratu behar ditugu, harremanetarako guneak, legalki dagozkigun ekipamendu eta zerbitzuen horniketarekin.

Altza osotik aurrera eraman nahi diren eraikuntzako proiektu isolatu eta deskordinatuei ezetza borobila. (Lardialde, Pescafría, Jolastokieta, Ramón Vizcaíno, Buenabista).

- hiriko gunearekin ondo uztartzen den industriaren desagerpena probokatzen duelako, Udala tramitatzen ari den Plan Orokorrean hainbeste aipatzen duen erabilera nahastuari erantzunez.
- Lo egiteko auzoaren ezaugarrian sakontzen duelako, ibilgailuaren dependentzia bizkortuz eta gauza guztietarako desplazamendua bultzatuz.
- Era deskordinatu batean burutzen direlako, harremanik gabe eta Altzaren benetako berriztapena burutu gabe.

Benetako garapen sostengatuarengatik apostu egin behar dugu. Eta horretarako lehenetsuna eman behar zaio eraikuntza huts edo abandonatuta daudenei, hauek berrerabiliz. Altzak ezin du gehiago hazi, baina bai garatu.

Herreratik igarotzen den errepideari ezetza borobila.

Errepide honek Herrera gehiago zigortuko du, etxeetatik oso gertu igarotzen delarik. Ez da Herreratarren mesederako, Auditx-Akularren sartu nahi duten jende multzo erraldoiari irteera emateko baizik. Ezinezkoa da Amaran bariantearen lurperatze planak egiten dituzten bitartean Altzan horrelako despropositoak egitea.



Auditx- Akular gure aisialdirako gunea izan behar du, masifikatutako komunidade batek horrela behar duelako.





Lardialde – Nerecan. Etxe gehiago.



Ramón Vizcaíno. Herrera. Etxe gehiago.



Buenavista. Etxe gehiago.



Herrerako errepidea. Trafiko gehiago.

Etxebizitzaren arazoa enfoketuzen batetik begiratu behar da. Ez promotore edo konstruktoreen ikuspegitik. Etxebizitzaren arazoa Donostian, prezioan dago. Etxebizitzak soberan daude, baina hauek biztanleriaren gehiengoarentzat eskuraezinak dira, are gehiago gazteentzat. Gaur egun gainbalioa sortzeko eraikitzen da, ez diru sarrera gutxiago duten kolektiboen beharrak asetzeko. Eraikuntza sektorearen interesak dira urtean zenbat etxebizitza eraiki behar diren markatzen dutenak.

Soluziobidea:

1. Hirigintza gestio arduratsua.

Sostengurako erizpideak kontutan izanda, lurra nola erabiltzen dugun baloratu behar dugu, hau mugatua baita.

Euskal Herrian lehenengo sektoreko lurra era iraunkor batez galtzen da. Urtean 2.500 hektarea. 2005. urtean Estatu espainolean, Frantzia, Alemania eta Gran Bretaña baino gehiago eraiki da.

Ezin da jarraitu hirigintza hazkunde basatiekin. Zabaltze proiektuak, Auditx-Akular, Antondegi edo Zubieta bezala, sostengatu ezinak dira.

Salatu behar da udaletxearen papera lurra klasifikatzeko orduan. Etxebizitzen kopurua gazteen behararengan justifikatzen dute eta gero etxebizitza libreak eraikitzen dituzte. Adibide bat jartzeagatik Nerecan-Lardialde proiektuan 169 etxebizitzetatik, 96 libreak dira. Lur okupazio berriak babestutako etxebizitzari egokitu beharko litzateke bere osotasunean, etxe libreen promozioak desagertaraziz. Azken finean, hauek ez dute etxebizitzaren arazoa konpondu.

→ Hirigintza gestiorako sortutako neurri legalak betetzea eskatzen dugu:

- Etxebizitza operazio bakoitzeko portzentai bat babes ofizialeko etxebizitzari dedikatu behar da. Hau ez da betetzen. Eta honela salbuespena araua bihurtzen da. Basozabal kasua lazarria da, eta salatua izan zen honengatik. Basozabalen legez eraiki behar ziren babes ofizialeko etxeak beste toki batera trasladatu zituzten, kuriosoki Auditx-Akularrera. Modu honetan, herrialdeen segregazio soziala bultzatzen dute, baita klase sozialen bilketa. Basozabalen, golfaren ondean, ez zituzten txiroak nahi.
- "%10-ren zesia". Lege honengatik Donostiako udalak etxebizitza proiektu bakoitzean %10 jaso beharko luke. Modu honetan Donostiak etxebizitza municipalak izateko aukera du, gutxien duen sektoreengana iritsiz. Kasu honetan, udalak etxebizitza politikari lapurtzen dio neurri legal hau. Promotoreari %10 hori etxebizitzan hartu beharrean diruan

biltzen du, eta hiriko beste proiektu batzuk finantziatzen du. 1995. urtetik Donostiak jabego municipalen 1000 etxebizitza baino gehiago izan beharko luke.

2. Etxebizitzaren gestio arduratsua.

*** Eskaintzaren gestioa:**

→ **Etxebizitza hutsak alokairuan jartzeko neurriak hartu.** Zentzu horretan borondateaz gain ausardia behar da. Udaleko Alokabide programa bultzatu, beste departamenduetatik neurriak zuzenduz, gazteria eta ongizate departamendutik hain zuzen.

→ **Bigarren etxebizitza eta etxe hutsen penalizazioa, zergen bitartez.**

→ **Etxebizitzaren tipologia aniztasuna.** Eredu klasikoaz gain (jabego pribatua, 90 m², trastero eta garajea) beste eredu batzuk kontutan izan behar dira, aukera guztiak mahai gainean jarritz.

→ **Alokairuzko etxebizitzaren apostua.**

*** Eskariaren gestioa:**

→ Etxebideko **zerrendetan dagoen iruzurra ekidin.**

→ **Altzaren benetako etxebizitza eskariaren azterketa.** Behartutakoen beharrak eta ezaugarriak ezagutu behar dira (errenta mailak eta abar...). Azteketa horretatik etxebizitza-eskari zentso bat atera beharko litzateke, ekonomikoki gaitasun ezberdina duten pertsonen arabera oinarrituz.

Alokairuaren apustu ausarta eta erabakigarria, etxebizitza hutsak merkatuan alokeran jartzearen apustua, eraikinen berrerabilera, hiri guztian BOE eraikinak egitea, zerrendetan iruzurrik egin gabe, etxebizitza libreen promozioa baztertu...dira, beste askoren artean, etxebizitzaren arazoari aurre egiteko bideak.

Aurretik aipatu dugu Altzako garapen urbanistikoak utzitako herentziak ugariak izan direla. Horietako bat, eta areagotzen ari den arazoa, aparkalekuena da edo hobe esanda **aparkaleku faltarena** da. Gure kotxeak bigarren filan aparkatzera behartzen gaituzte gure kaleetan zirkulazio arazoak sortuz. Arazoa handitzen ari da eraikuntza berriekin eta horren adibide garbia dugu Buenavistaren kasua.

Aspektu honetan **neurriak behar ditugu, asko eta irudimenezkoak, bizilagunen onespén eta kontsentsuarekin.** Aukera horietako bat udalak gaur egun hutsik dauden azpiak eta sotoak eskuratu eta aparkaleku publikoetara gaitzea da. Adibide gisa, Larratxoko torreetako azpiak dira, non lotsagarriki oraindik hutsik dauden. Ez da inolaz ere onargarria behar baten aurrean eta gestio desegoki baten ondorioz negozioa egitea. Eta bide batez herritarrak aparkaleku plaza bat erostera behartuak izan, aparkalekua publikoa izan behar duenean.

Beste behar nagusienetako bat **Altzako auzo ezberdinen arteko konexioa** lortzea da. Auzoen arteko atomizazioa dela eta, altzatarren identitatea mantentzea zaila da. Bakoitzak bere auzoan egiten du bizitza (Oleta, Harri-Berri, Larratxo, Herrera, Buenavista, Gaina....) eta ez dago ia guztiok erabil ditzakegun gunerik, salbuespenak salbuespen, polikiroldegia dela edo anbulatorioa dela, zeinak handitze bat behar dute.

Polikiroldegian falta diren atal ezberdinak betearaztea eta bigarren fasearekin hasia. **Igerileku irekien eraikuntza**, aspalditik pendiente dagoen proiektua da.

Bide gorrien bidez auzo ezberdinak bateratzea. Beharrezkoa den tokietan eskailera mekanikoak eta igogailuak jartzea. Larratxo pasealekua eta Txirrita Bertsolariaren arteko barne konexioa, Oleta eta Buenavista artekoa. Larratxon, Santa Barbaran eta Oletan muga arkitektonikoak kentzea.

Barne mailako autobusa ipintzea, auzoen arteko lotura erreala eginez.

Audit-Akularren parke bat egitea erabilpen ezberdinetarako izanda. Biztanleri guztiarentzat aisialdi gune bat sortu, natur gune batez gozatzeko, urbanizazioetatik libre egonda. Ez dugu kotxez mugitu nahi beste gune berde batzuetara joan ahal izateko.

Aldaparik gabeko bideak eta ibilbideak osatuz eta ibar ezberdinen arteko loturak eginez.

Bestalde, **nekazaritzari eta abeltzaintzari zuzendutako ekintzak bideratzea, lurraren zaintzarako.** Ezin daiteke onartu urbanismoaren presioaren ondorioz nekazaritza sektorea galtzen joatea. Akats izugarria da, ondorio larriak ekarriko dituen.

Produktu freskoen merkatua. Ez ditugu galeria komertzialak behar, herri merkatua behar dugu eta merkatu ibiltariaren baimena.



Igerileku irekiak jartzeko gunea.



Nekazal eta abeltzantzarako lurak.

Donostian antolatzen diren **kirol eta kultur ekintzetatik %15 Altzan** eta Altzarako antolatzea.

Aisialdirako lokalak, gazteak eta nerabeak elkartu ahal izateko.

Balioanitzeko lokal sozialak.

Harrobitxuloko gunea berreskuratu behar da. Herrerarentzako zabalgunea bezala, Intxaurrondoko Justo Eleizaran pasealekuarekin konektatuz eta tuneletik bidea errekueratuz. Inguru hau **aisialdirako** gune egokia dela deritzogu. Honela, Harrobitxulon Plan Berezi bat egin behar da, inguruko beharrak kontuan hartuz.

A8ko peajea kentzea, Herreratik pasatzen den N1 trafikoa arinduz.

Honekin batera, **Orereta-Oiartzun-Hondarribia autobus linearen erabilpena** erreibindikatzen dugu, Cia de Tranbiaren akordioaren aurretik bezala. Altzatarrak historikoki Donostiarekin baino gehiago Orereta eta Pasaiarekin izan du erlazioa eta.

Altza-Antiguo autobus linearen hobekuntza ikasleen ordu puntaletan, autobus zuzenen bidez.

Altzan **baratzean** lan egiteko afizioa dagoenez, arautu egin behar dela iruditzen zaigu. Mantendu eta babestu egin behar da aisialdi moduan baina **modu egoki eta ordenatu batean**, txabolismoa baztertuz.

Molinao parkearen berreskurapena eta mantenimendua. Guztiz utzia baitago.

Argiztapen hobekuntzak hainbat guneetan batez ere emakumeei begira (Dariatatik Eskalantegira, Oletatik Trintxerpera doan tunela, "Eskalerillaseko" bidexka, Herreratik Trintxerpera doan bidea...). Toki hauek emakumeentzako arriskutsuak baitira.

Gune ezberdinetan **komun publikoak** jartzea (Harria parkean, Larratxoko parkean...) **Iturriak** ipintzea. Gure kaleetatik txakurren kakak desagertzeko neurriak.


Larratxoko zerbitzu soziala mantendu, nahiz eta beste bat proposatu. Egokiena bat baino gehiago izatea da, batez ere biztanle asko eta behar ugari dituen gune bat izanik.



Gazteentzako lokalak.




Harrobitxulo: Herrerarako aisialdiko gunea.



Baratzak txukundu eta ordenatu behar dira.



Molinao. Gaur egungo utzikeria nabarmena da.



Gazteriari dagokionez, arazoen inguruko informazio eta prebentzioa.

Prebentzio kultura: **komunitate prebentziorako plangintzaren garapena,** prebentziorako lanean jarduten duten eragile sozial ezberdinekin batera, eskolak eta institutua barne. Gure auzoak arazotsuak edo marginalak izatearen ezaugarria gainditzen ari dira. Heroinaren arazoa ez da garai batekoa bezala. Baina droga berriak gazterian kalte handiak sortzen ari dela begibistakoa da. Plan hau berehala martxan jarri behar dela uste dugu.

Bide batez, **prebentziorako laguntza ekonomikoa,** ez baitu zentzurik Plan bat egitea, gero diru iturririk ez baldin badago.

Honekin batera, guztiz beharrezkoa eta premiazkoa da Garberak dakarren **kontsumismoaren arloan hezkuntz ikuspegi batetik plan bat egitea.** Gazteen aisia zentru komertzialak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruan mugitzen da. Umetatik gure haurrak hezitzen ditugu aisialdia eta zentru komertziala identifikatuz. Igandetan bertara hurbildu, eskaparateak begira eta Burger-etan janez. Bitartean gure auzoetan bizi soziala galduz doa.

Gazteak gustora sentituko diren **espazio eta eskaintza berrien indartzea** eta sortzea. Gune hauen gestioan partehartzeko aukera izanik.

Altzan, gazteek ez dute aisiaz gozatzeko gunerik ikusten. Donostiara, Oreretara, Irunera joateko hautua egiten dute. Joera hau betidanik eman izan da, baina hautua egiten dutenean ez dadila izan Altzan ezer ez dagoelaren aitzakipean.

Gazte bonobusaren ezarketa.

Altza osoan, **udal haur eskolen irekierak** non plazak biztanlego kopuruaren araberakoak izango diren. Dohainik.

Eskola ezberdinen ekipamenduen erabiltzeko aukera bizilagun ezberdinetatik. Eskola-orduz kanpo espazio hauek aprobetxatu daitezkeelako. Honetarako udala eta APASen arteko akordioa eginez.

Auzo Etxea, Herrerako auzotegia, Larratxo eskola: Altzako **taldeentzako gestioa eta finantziaketa.** Gestioa udaleko langile batek eraman beharrean, taldeek eurek izan beharko lukete hortarako ahalmena. Langile hauen zeregina talde hauen gestiorako bideak aurkitzea izan beharko duela, taldeei protagonismoa eta erabakitze aukera emanik.

Osasunari dagokionez, 22.000 biztanleko herri batek **24 orduko larrialdietako zerbitzua eta anbulantzia** iraunkor bat behar du.



Bonobus gaztea.




Larratzoko eskola: auzorako gestioa.



Urgentziazko zerbitzua 24 ordu. Anbulantzia.



Udalak komertzio haundia laguntzen du txikia galtzen ateratzen den bitartean.



Konpetentzia oso zaia da eta asko dira itxi behar izan duten komertzioak.

Udalak behar gehien duen herritarrekin sentsibiltatea erakutsi behar du, batez ere langabetuekin. Borondate politikoa baldin badago gehiago egin daiteke. **Altzako udalean langabetuen zentsoa** egitea proposatzen dugu.

Langabetuekin zuzeneko harremana egon behar du, laguntzen berri emanaz.

Komertzio txikia. Bereizkeri positiboa. Udalaren politika komertzio handien aldekoa izan da, Eroski batez ere. Denda txikien arazoak ugarituz eta kompetentzia zail baten aurrean jarriz.

Oraingoan, berriro ere, beste proposamen erraldoi batekin datoz, denda txikien kaltetarako: 2.300 m² galeria komertzial baten irekiera, Pescafria proiektuaren barnean. Honi erabateko ezezkoa ematen diogu.

Azkenik, Altza biztanle dentsitate handia duen lurraldea dela jakinik, eginiko proposamen guztiak **Urbanismoaren Planteamendu Moderno** baten barruan txertatu behar dira. Orain arte eginiko planteamendu guztiak eraikin pribatuak eta espazioak antolatzean oinarritu dira, eremu publikoak baztertutako espazioak bezala utziaz.

Gaur egun herritarren bizitzan eremu publikoaren garrantzia guztiz aitortua dago. Kaleak, plazak, pasealekuak eta azken finean gure etxetik kanpo dagoena, erlazionatzeko, biltzeko, bizitza sozialerako, jolaserako gunea da. Bai haur, gazte, heldu edo eta nagusien laguntasunerako. Horregatik, mimatu eta modu positibo batean bideratu behar da.

Altzan, 2007ko martxoak 28

Altzako HERRI PROGRAMA



2007 maiatza

EL PROGRAMA DE LA IZQUIERDA ABERTZALE

Cuando llegan las elecciones municipales hablamos constantemente del Herri Programa. Antes de entrar en materia, y por si todavía alguien tuviera alguna duda, queremos dejar claro qué es el Herri Programa para la izquierda abertzale.

El Herri Programa es el instrumento fundamental para desarrollar nuestro proyecto político. Un proyecto que se va dibujando pueblo a pueblo.

Debemos ir articulando base en el camino de la construcción nacional y el cambio social. Esas bases las definimos en lo que hemos denominado Herri Programa.

Es un ejercicio práctico para construir Euskal Herria desde la izquierda. Partiendo de diagnósticos reales, profundizando en nuestro modelo de pueblo de manera teórica y recogiendo las aportaciones y necesidades que detectamos, configuramos nuestro Herri Programa.

El Herri Programa debe servir para garantizar los derechos de l@s ciudadan@s.

En todos estos años la Izquierda Abertzale ha demostrado capacidad, madurez y voluntad para hacer una oferta política al modelo de pueblo y ciudad que la mayoría necesita.

Siempre hemos hecho un programa con la participación de los distintos sectores del pueblo. Hemos acercado el ayuntamiento a la vida cotidiana y a l@s ciudadan@s. Hemos hecho un programa participativo.

En las próximas líneas vamos a presentaros el Herri Programa de la Izquierda Abertzale de Altza. Como hemos dicho, pretende ser **participativo, euskaldun, de izquierdas, que garantice la paridad, que cierre las puertas a las injusticias y haga respetar los derechos de todas las personas.**

MIRANDO HACIA ATRÁS

Han pasado unos cuantos años desde que la izquierda abertzale de Altza realizara su primer Herri Programa. **Un programa del pueblo y para el pueblo que siempre ha buscado la participación de la gente, para defender los intereses reales de l@s altzataras.**

Si nos remontamos a las primeras elecciones municipales como Herri Batasuna (21-3-1979), ya se señalaba que el mejor alcalde era el pueblo (Alkaterik onena... herria).

Y se marcaba así el carácter popular que nos ha definido siempre. Durante 20 años, Herri Batasuna o HB ha sido nuestra marca.

En 1999, ante la situación política generada, nos dotamos de un nuevo instrumento, Euskal Herritarrok.

Mas tarde será Batasuna. La legislatura siguiente vendrá marcada por la ilegalización tanto de Batasuna como de las diferentes organizaciones de la izquierda abertzale. Tiempos duros, de ilegalización y criminalización. De esta manera, en el 2003 la plataforma electoral Baga Boga queda fuera del ayuntamiento de Donostia, como tantas otras en toda Euskal Herria.

A pesar de los ataques sufridos, a pesar de la represión desatada contra nuestras organizaciones, a pesar de todo, nuestra gente ha seguido trabajando y luchando por una política de izquierdas, que esté con el trabajador y con los menos favorecidos.

Generaciones de altzataras han estado ahí, trabajando y peleando, con el objetivo de construir Altza desde todos los frentes y con una perspectiva de futuro.

Se han hecho análisis exhaustivos de la situación de nuestro pueblo. Se han realizado jornadas para analizar el desarrollo que el ayuntamiento de Donostia nos deparaba. Las consecuencias que los planes diseñados desde la calle Ijentea, podían tener en nuestra vida diaria, en las relaciones sociales, en la ya castigada identidad de Altza. Hemos hablado de qué tipo de Altza queremos y también qué no queremos. Y todo ello lo hemos ido plasmando en los Herri Programas que hemos ido presentando para las elecciones municipales.

Pero la dedicación de la izquierda abertzale nunca ha sido presentar un programa electoral para ganar votos y luego olvidarse de lo dicho. No. **Somos pueblo, y como parte activa de él nos mueve el bienestar de los que vivimos en Altza. Eso sí, desde una perspectiva de izquierdas y abertzale, en aras de un cambio social que nos haga mas felices y mas iguales a tod@s.**



21-3-1979 primeras elecciones municipales.



Euskal Herritarrok. 1999.

MIRANDO AL FUTURO

Después de hacer un repaso a nuestra historia más reciente, sin obviar el trabajo realizado hasta ahora, mas si cabe, recogiendo lo estudiado, lo dicho, lo trabajado, con todo ese bagaje de lucha y experiencia, vamos a conformar el Herri Programa para las elecciones municipales de 2007.

Pretendemos desde nuestra humildad, que sea un programa del pueblo y para el pueblo. Con la participación de asociaciones, grupos y personas en general que año tras año han ido aportando. Reconociendo **cuáles son las necesidades mas apremiantes y las líneas de trabajo prioritarias.**

No somos políticos al uso. No venimos cada cuatro años a pedir el voto. Vivimos aquí. Y peleamos en defensa de una mejor calidad de vida, para **construir un Altza y una Euskal Herria en los que la justicia social y la preservación de nuestro territorio sean una realidad.**

NUESTRAS PRINCIPALES LÍNEAS DE TRABAJO

